



AKTA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK 2019KO UZTAILAREN 23AN EGINDAKO BILERARENA

Presidenteak deituta, OSAKIDETZA - Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren egoitzan, 2019ko uztailaren 23an, 09:00etan, eta honako hauek dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

DEITUTAKOAK

PRESIDENTEA

Miren Nekane Murga Eizagahevarria andrea

PRESIDENTEORDEA

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

KONTSEILUKIDEAK

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Hernando Lacalle Edeso jauna
Fátima Ansotegi Elordi andrea

IDAZKARIA

Ibon Etxeberria Olañeta jauna

Era berean, Juan Luis Diego Casals jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusia deitu dute Kontseiluaren bilerara, presidenteak gonbidatuta.



Bestalde, berrikuspenaren ondorioz, baliteke I. eranskineko lanpostu funtzionalak lortzeko eskakizunak aldatzea, hala nola haiek hornitzeko modua, titulazioa, eskarmentua eta hizkuntza-eskakizuna. 186/2005 Dekretua onartu zenetik, titulazioa aldatu egin da, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua onartzearen ondorioz. Azken horren bidez, goi-mailako unibertsitate-ikasketak arautu dira eta goi-mailako hezkuntzarako europar esparru berria (Bologna Plana) egituratu da. Hala, I. eranskineko lanpostu funtzional bakoitzaren titulazio-eskakizunak esparru horren arabera eguneratu behar dira. 186/2005 Dekretuan eskatutako tituluak eta goi-mailako hezkuntzarako europar esparru berritik ateratako titulazioak ez datoz bat, ez titulazio-mailan, ez izenean. Horrek ziurgabetasun juridikoa sor dezake lanpostua lortzeko prozesuetan, esparru berritik sortutako tituluak ez daudelako jasota egungo Dekretuan.

Hornitzeko modua aldatzeko, 8/1997 Legeak ezarritako baldintzak bete behar dira nahitaez. Izan ere, lehiaketa izango da lanpostu funtzionalak lortzeko sistema arrunta, eta erantzukizun berezia duten lanpostu funtzionalak baino ezingo dira izendapen askeko sistemaren bidez hornitu. Lanpostua betetzeko eskatutako esperientziari dagokionez, eskarmentutzat hartzen da jatorrizko kategorian jardunean izandako denbora, eta zenbait zuzendariorde, buruzagi edo koordinatzailearen kasuan baino ez da eskatzen. Hala ere, hori alda liteke, lanpostu horiek lortzeko egoki irizten zaionaren arabera.

Lanpostu funtzional bakoitzerako behar den hizkuntza-eskakizunari dagokionez, Osakidetza Administrazio Kontseiluak onartzen ditu hizkuntza-eskakizunen gaineko aldaketak eta lanpostuen derrigortasun-datak, baita Euskara Planean helburu zehatzak dituzten langileei eta unitateei eragiten dieten bestelako aldaketak ere. Aldaketa horiek 186/2005 Dekretuaren I. eranskinen jasotako lanpostu funtzionalen langile guztiei eragin diezaiekete, baina beti esleitu beharko zaie Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan ezarritako hizkuntza-eskakizunetako bat.

Azkenik, komeni da 186/2005 Dekretuko titulazio-taldean eta lanbide-taldean sailkapena egokitzea Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legean eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan jasotako egiturara. Izan ere, Osakidetza indarrean dauden lanbide-taldean eta -kategorien egitura egokitu eta birsailkatu behar da, aipatutako araudira egokitzeko.

Laburbilduz, 186/2005 Dekretuaren I. eranskineko edukiak hauen eragina jaso dezakeela, tarteka: estatuko legedia edo europar araudia, antolakuntza-irizpideak —egungo lanpostuei eginkizun berriak eranstea edo lanpostu berriak sortzea, biztanleriaren asistentzia-beharrak asetzeko, etengabe eta azkar bilakatzen baitira (etxez etxeko arreta, etab.)— edo lanbide-profil berriak (datu-analistak, matematikariak, bioteknologoak, genetikariak, 3D inprimaketako espezialistak, etab.), etengabeko egokitzapena behar dutenak. Horrek guztiak etengabeko egokitzapena eskatzen du. Horregatik, arauketa honen helburua da aldaketa eraginkortasunez eta arintasunez egitea, eta prozedura luzeak saihestea —halakoak behar baitira erregelamendu-arauak egin, onartu edo aldatzeko— funtsean antolamendurako eta jarduteko diren erabakietarako prozesuetan. Hortaz, egoki eta onuragarri irizten zaio I. eranskinaren aldaketa Osakidetza Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez egiteari, eta, ondoren, Gobernu Kontseiluak erabaki hori berrestea, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, herritar orok horren berri izateko.

Hala, Dekretu honek artikulua bakarra eta bi azken xedapen ditu, eta Osakidetza Administrazio Kontseiluari eginkizun bat gehiago esleitzeko eman da, nahiz eta Osakidetza - Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialak onartzen dituen azaroaren

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.- Errekurtsoak.

Dekretu honen aurka, administrazio-bidea agortzen baitu, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, Dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Dekretuaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, Dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.- Eragina.

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango du eragina.

LAUGARRENA.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zerbitzu-erakundeetako plantilla

Zuzendari nagusiak aurkeztutako egiturazko plantilla eta komunikazio erantsiak ikusita, 2019ko ekainean egindako lekualdaketen berri eman da.

BOSGARRENA.- Kudeaketa Klinikoko Unitateak arautzeko erabakia

Administrazio Kontseiluak 2012ko maiatzaren 23an hartu zuen erabaki batek, kudeaketa klinikoko unitateen araudiari buruzkoak, aukera eman zuen asistentzia-zerbitzuen antolaketara modu berriak ezartzeko, pazienteek integrazio asistentzialaren inguruneen testuinguruan duten beharretan zentratuta.

Erabakia hartu zenetik pilatutako esperientzia dela eta, komenigarria da zenbait aldaketa egitea, batik bat erakunde bi edo gehiagoren baliabideak biltzen dituzten kudeaketa-unitateen kasuan. Halakoetan, antolaketan egindako aldaketak duen eraginaren ondorioz, komenigarria da Administrazio Kontseiluak hartzea sortzeko erabakia, hura baita erakunde sanitario integratuak (aurrerantzean, ESI) sortzeko eta/edo aldatzeko ardura duen erakundea. Hala, ESIetan bildutako erakundeen zuzendaritza-eta kudeaketa-organoen izena eta eginkizunak egokituko ditu, bat etorrita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren erakunde sanitario integratuei buruzko uztailaren 3ko 100/2018 Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrenari jarraikiz.

Era berean, erakunde baten baino gehiagoren unitateak edo zerbitzuak biltzen dituzten kudeaketa klinikoko unitateak sortzean, komenigarria da koordinazio-batzordea sortzea, koordinazioa eraginkorragoa izateko. Batzorde hori osatuko dute unitatea eratzen duten kudeaketako zuzendaritzek eta asistentzia-zuzendaritzek eta unitateburuak.

Horrez gain, lehen mailako arretako unitate edo etengabeko arreta-gune bi edo gehiagoz osatutako kudeaketa klinikoko unitateak ere sor daitezke.

Azkenik, erabakiaren aplikazio-esparruan, atxikitako zentroi ere erreferentzia egiten zaie.

- Unitatearentzat proposatuko antolaketa.
- Unitatea martxan jartzearen kostuak.
- Jarraipena eta ebaluazioa egiteko informazio-sistema.

4.- Kudeaketa klinikoko unitateak dagokien zerbitzu-erakundeko zuzendari kudeatzailearen mende egongo dira, organikoki zein funtzionalki. Unitateak zerbitzu-erakunde bat baino gehiagoko baliabideak hartzen baditu, unitatea eratzeko erabakian jasoko da unitatearen mendekotasun organikoa eta funtzionala.

5.- Kudeaketa klinikoko unitateak formalki eratuta geratuko dira kudeaketa klinikoko lehen hitzarmena formalizatzen denean.

4. artikulua.- Kudeaketa klinikoko hitzarmena.

1.- Kudeaketa klinikoko hitzarmena agiri edo dokumentu bat da, kudeaketa klinikoko unitatearen arduradunak, unitatearen izenean eta ordezkaritzan, eta kasuan kasuko zerbitzu-erakundearen zuzendari kudeatzaileak sinatua, eta alderdi biek hartutako konpromisoak jasotzen ditu. Erakunde bati baino gehiagori eragiten dioten kudeaketa klinikoko unitateen kasuan, kasuan kasuko erakundeen kudeaketako zuzendaritzek sinatuko dute hitzarmena. Unitate hori zein kudeaketako zuzendaritzaren mendeko den zehaztuko da, eta unitatea eratu zen uneko baldintzen arabera, mendekotasuna partekatua izan daiteke.

2.- Kudeaketa klinikoko hitzarmenaren helburua da herritarrei arreta sanitario integrala eta kalitatezkoa ziurtatzea, esleitutako baliabideen kudeaketa efizientearen esparruan.

3.- Kudeaketa klinikoko hitzarmenak honako hauek ezarriko ditu urteko ekitaldi bakoitzerako:

- a) Osasunarekin, asistentziarekin, prestakuntzarekin, irakaskuntzarekin, ikerketarekin, berrikuntzarekin eta bestelako gaiekin lotutako helburuak, zerbitzu-erakundearen hitzarmen-programaren arabera.
- b) Indarraldirako esleitutako giza baliabideak eta baliabide materialak eta teknologikoak.
- c) Unitatearen gastu eta sarreraren aurrekontua.
- d) Kudeaketa klinikoko hitzarmena ebaluatzeko adierazleak, baliabideak, irizpideak eta metodologia.
- e) Pizgarririk aurreikusiz gero, haiek banatzeko irizpideak eta mekanismoak.
- f) Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak.

4.- Hitzarmenean zehaztuko da ESIko zuzendaritzak zenbaterainoko deszentralizazioa eta autonomia ematen dion unitateari.

5.- Kudeaketa klinikoko hitzarmenak metodologia bat jasoko du, unitatea osatzen duten pertsoneri pizgarriak esleitzeko, helburu indibidualen eta kolektiboen betetze-mailaren arabera.

6.- Kudeaketa klinikoko hitzarmena urtero ebaluatuko da, ondorengo urtearen lehen seihilekoan, ezarritako helburuak zer punturaino bete diren ikusteko. Honako hauek egingo dute ebaluazioa: